

JUAN JOSE URANGA.—*Nazaret-eko gizasemearen mintzoa*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala. Donostia, 1981.

Gure artean inoiz badirudi saiaera bere funtsean zer den ere ez dakigula, ohituak gaudenez edozein estudio edo tesi mota jenero horren barruan eskaintzera. Behar bada pentsatzaileak urri eta teknokratak ugari ditugulako izanen da. Inoiz estrukturalismoko teoriak ere buztanetik hartu ditugu, aldezturik subjektiboki jarritako baldintzetan oinarriturik agiri eta lekukotasunak karreiatuz pilatu ditugunez, egileak lehendik pentsatua zuen arrazoiaren bila. Era hortako lanaren biktima izan zen G. Aresti gizajoa *Sei idazle plazara* argitaratzeaz. Egileek begiarmen ibiliko ziren baina zentzuz motel. Gure garaiko gizarte-ekonomi praktikotasunak eroan ote gaitu hortara? Denaren den, jokabide hori, pentsamendu filosofikoetara hurbiltzeko ez da izan biderik onena.

Pentsamenduzko sorketan oinarritu beharra du saiaerak. Hortarako gaia aldezturik ondo ezagutu eta ondo aztertu beharra dago aburuak eskaini ahal izateko. Agian, aburuok ez dira izango definitiboak, baina aski da zerbait ideia edo ikuspegi berri eskaintzea, bidea ibiliaz egiten denez gerorako edo gerokoentzat bidea ideikitzea denez. Hein batean, ikerketa filo-

sofikoetara eta zientifikoetara hurbilduz erabili behar da go-goeta luzeagoen bidez heldutako saioa. Bestalde kontu handiz ibili lizentziaturetako zenbait tesi saiaerekin ez nahasten.

Egia esan, pentsamenak ere ez dira bapatean sortzen. Horiek ere beren giroa eta esan dugun heldutasun hori behar dute gizarte plazara egokitasunez aterako badira. Maiz gizon askoren ekintza eta iritzien ondoko fruitua denez saiaera. Eta, era hortakoa dela esango genuke J. J. Urangak *Nazaret-eko gizasemearen mintzoa*-z eskaintzen diguna. Gure artean guti ohi den bezalako lana. Sarreran Salvatore Mitxelenaren hitz batzu jar-tzen ditu eta gure mende hontan euskaraz idatzi diren saiaera guti horietako bat gogoratzen digu, maila berekoa ez bada ere, *Unamuno ta abendats*. Zein bata eta zein bestea, liburua idaz-ten hasi baino lehen ondo egosi eta ondo benderatutako lanak bai dira. Horiek ez dira hasi lanean eta eginaren buruan ia zer irtetzen denari begira beteak; ez. Baizik, lehendik asko erabi-liak, barnetikako kezkatik gogoetaren bidez burutuak eta bu-rutu ondorean egilea liburua idaztera bultzatuak. Badakigu gaia bera ez dela gauza berria, Kristoren mezuaz anitz saiaera badirela, euskarazkorik ere bai; behar bada, erderetatikoak dituela lana burutzeko erabili dituen iturririk gehienak. Hala ere, Urangaren lana beste zerbait da, besteena ezagutu eta bere-baitan aztertutako gogoetetan oinarriturik datorrenez. Egile baten pentsamenezko iritziak ezkaintzen dizkigu.

Jesus gizasemearen nortasun bereziaz asko idatzi da, asko esan da, bestela inork ez zuen Jainkotzat hartuko. Bere gaia, badirudi, aspaldikoa, gaurkoa eta betirakoa dela. Eta, nork uka egungo gizarte-ekonomian praktikotasunik duen ala ez? Uran-garen saiaeran Nazaret-ekoaren aurpegi berri bat ikusten da. Jesusen bizitzaz eta mirakuluz guti ihardungo da. Gizarte berri bati begira eskaini zuen mintzoaren oihartzunez baino aisago bere mezuaz arduratu da. Mintzatzean erabili zituen ideia berriak gizonaren nortasunez eta bere libertatez eternitatera begira.

Europar aspaldi hasiak ziren era hortako lanez behar be-zala baliatzen, Testamentu Zaharrean eta Talmud-ean edo bes-te idazki zaharretan lehendik agertzen ez ziren ideiak eta me-zuak zetoztela Testamentu Berrian, bereziki Ebangelioetan.

Argi berri hori zela Kristoren errazoa eta mezua eta ordurar-teko iluntasuna uxatzen zuela. Hargatik, Lukazek zioen: «Itsu-ak ikusi egiten dute», esaldiaren funtsean, argi berriak hori bai zekarren. Gure mendeko europar pentsalari jakitunek be-rriki erabilitako ideiak hartzen ditu egileak oinarri. Baina, esan dugun bezala, J. J. Urangaren azterketa pertsonaletik ere anitz bada. Horregatik, bere aburuzko ikuspegi zabala agertuko digu, euskara jori baten bidez, edonork gai hori ondo kon-prenitzeko eraz.

Argi dago gai horietarako euskara landuagoa edo eginagoa dugula, beste batzutarako baino, eta horrek asko lagundu dio egileari bere ideak agertzeko orduan.

Honako kapitulu hauek osatzen dute liburua: Nazaret-eko gizasemearen mintzoaren bila, Misioa, Salbamen garaiaren egunsentia, Grazi epea, Jainko herri berria, Jesus eta bere handitasun kontzientzia eta Pazko.

Saiaera liburu honek 1980ko Irun Hiria deritzan literatura sariketan jenero hortako saria irabazi zuen. Ongi merezia be-netan.

J. S. M.